

Getxoko VIII. antzerki feria



Patxo Telleria, Inaxio Tolosa eta Mikel Martinez, ezkerretik eskubira.

Marx anaiak berriro antzerkira itzuli dira Maskaradarekin

LOREA AGIRRE / DONOSTIA

Marx anaiak antzerkian hasi ziren lanean eta Maskaradakoek antzerkian bueltatu nahi izan dituzte. Marx anaien solasaldi etengabeek duten umore mingotsa isladatzea izan da taldekideen asmoa. Groucho, Chico eta Harpo, oraingoan Mr. Flywheel, Ravelli, eta Astolfi dira. Badago laugarren pertsonaia bai. Marx anaiak erdi ametsetan ikusten duten emakumeak, ikuskarien mundua sinbolizatzen du.

Maskarada taldeak euskaraz aurkeztuko du arratsaldeko zortzi t'erdietan Gurea zineman 'Marxkara' antzezlana.

Orohar bi abipuntu nagusi hartu dituzte Maskaradakoek antzezlari honen testua idazterakoan. Batetik, 1932-33 urteetan Marx anaiak NBC irratiarako egin zituzten gidoiak eta orain urte gutxi Michael Marson-ek aurkitu eta 'Marx anaiak, abokatuak' liburuan bildu dituenak. Eta bestetik Marx anaien filmak hartu dituzte oinarritzat.

Azpeitiko VIII. euskal antzerki topaketak

Karraka taldearen 'Godot' edo Mister Marshall antzerkiratua

L. A. / DONOSTIA

Litxarote baten historia kondatzen da 'Godot' antzezlanean. Inoiz iristen ez den Godot pertsonaiari, ongi etorri festa emateko jendea tren geltoki batean bildu da. Jendetza alde batetik bestera mugitzen da gertaeraren arabera, eta bitartean pertsonaia arraroak eta etorrera iragartzen duten ahotsak nahasten dira. Gauza guztiek gertaera handiren bat jazaraztera doala adierazten dute...

Azpeitiko frontoian antzeztuko dute gaur gaueko bederatzi t'erdietan Karrakakoek. Samuel Beckett-en 'Godoten zain' nobela eta Berlanga zinema zuzendariaren 'Ongi etorri Mr. Marshall' filmea hartu dituzte oinarritzat, antzezlari honen testua idazterakoan.

TAULA NATURALAK EGOKITASUNA

Pedro Barea, Karrakako zuzendariak, adierazten duenez, Beckett-en pertsonaia hau esperantzak eza eta deshumanizazioaren eredu da. «Pertsonaia horren izen bera erabiliz, ideia horren



Godot pertsonaia.

ikuspunturik solemnizatuena ari nagotzen dituen ikuskaria eratu dugu». Antzezlari hau orain urtebete eskas estreinatu zuen Bilboko

Abando tren geltokian, Karraka taldearen hamargarren urteurrena bete zen garai berean. Pedro Barearen hitzetan, «antzeztu den lekuak, hain eragin handia du espektakulu batean, penagarria dela eszenografi naturalak ez erabiltzea. Trena, andenak, eskilara mekanikoak, kartelak, megafonia eta beste erabili ahal izatea da egokiena muntai honentzako. Ikuslegoaren ohizko jarrera ere aldatu egiten da, ez bait da taula normal bat; jendea alde batetik bestera mugitu behar da historia jarraitu ahal izateko».

«Sarri askotan banalizatu izan dira kultur gai handiak, mitoak. El Quijote, Segismundo edo Hamlet 'pop' ikuspegitik ikusiak izan dira. Beckett berak ere, bere izaki filosofikoak makurtzen zituen honelako egoera iragarrietara. 'Godot' ful hau, beckettarragoa da duen umoreagatik, izenburuagatik baino».

Obra honetan, antzezlariaren alde harrigarri eta umoretsua nabarmen-tzen da, Beckett-en 'Godoten zain' zena, 'Ongi etorri, Mr. Marshall' en antzeko zerbait bihurtuz.

Hogeitazortzi Udal euskaldun
gehiago datoz katean

EGUNKARIA agurtu nahirik


bihotza bete betean

zeurekin gaude gau eta egun

atsegin eta nekean

eman ta zabal zeure frutua

euskal zaleen artean



UDAL EUSKALDUNOK

AGUR ETA ONGI ETORRI

Egunkaria RI